

# COVID-19ko beste 44 kasu positibo detektatu dira Nafarroan, 1.757 proba egin ondoren

Atzokoan, 40 pertsona zeuden Foru Komunitateko ospitale-sarean ospitaleratuak, horietatik 14 ZIUn

**Asteartea, 2021ko Ekainaren 8a**

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) emaniko datuen arabera, COVID-19ak kutsaturiko beste 44 kasu positibo detektatu ziren atzo Nafarroan, osasun-sistema publikoan 1.757 proba egin ondoren (796 PCR eta 961 antígeno-test). Positiboen ehunekoa %2,5koa izan zen.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).